



ARANTXA GONZALEZ ▶ MME-KO ZUZENDARITZA OROKORRAREN ZUZENDARIA

«Merkataritzaren oztopoak gainditzen saiatzen da erakundea»

TOLOSA ▶ 150 lurralde hartzen dituen Munduko Merkataritza Erakundearen ari da aholkulari bezala

EKONOMIA ▶ «Euskal Herrikoa dinamikoa da; teknologia aldaketetara egokituz doa», dio ▶ 2



Arantxa Gonzalez Beizamakoa da jaiotzez, baina urte askoan Tolosan bizi izan da. HITZA

CHELO ROMEO ▶ IBARRAKO ALKATEA

«Azken legealdia ahaztu eta etapa berria hastea proposatuko dut» ▶ 6



E.EZEIZA

OARSOALDEKO HITZA



Orfeoia eta Tirri Tarraren 'Argi Beltz' saioa, gaur

TOLOSA ▶ 90 musikari inguruk emanaldi «berritzaile eta ezberdina» eskainiko dute Euskal Herria plazan, 23:00etan ▶ 3



sanjoanek 2007 tolosa

ARANTXA GONZALEZ ▶ MUNDUKO MERKATARITZA ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA OROKORRAREN BULEGOKO ZUZENDARIA

«MME saiatzen da merkataritzaren oztupoak murrizten»

Ekonomia munduan urte askotako lana egin ondoren, Ginebran amaitu du lanean Arantxa Gonzalezek

ESTI EZEIZA

Arantxa Gonzalezek (Beizama, 1969) ekonomia arloan egiten du lan aspalditik. Tolosan urte askoan bizi ondoren, egun, Munduko Merkataritza Erakunde zuzendaritzan ari da. Euskal Herritik hurrin urte asko badaramatza ere, beti mantendu du bere sorlekuarekiko erlazioa, horren adierazle da, oraindik ere, euskaraz arazorik gabe moldatzen dela.

Zel in da Beizamatik Ginebrara iritsi arte egin duzun ibilbidea?

Beizamatik Tolosara, Tolosatik Iruñera, Iruñetik Madriler, hortik Bruselara eta orain Ginebrara. Bertako errealitatea gertutik ezagutzeak mundu konplexu honek sortzen dizkigun arazoei aurre egiten laguntzen digu. Hitz gutxitan, Beizamako udazkeneko xirimiri ez da hain desberdina Bruselasekoaren edo Ginebrakoaren aldean.

EUSKAL HERRIA

«Euskal Herriko ekonomia dinamikoa da; ekoizpena teknologia aldaketetara egokituz joan da»

MUNDUA

«Ekonomia modu iraunkorrean hazten ari da. 80. hamarkadatik hona pobrezia %50 urritu da Asian»

DIFERENTZIA

«Herri txiro gutxiago egonagatik, aberatsen eta txiroen arteko aldea gero eta zabalagoa izaten jarraituko du»

Zertan datza zehazki zure lana?

Munduko Merkataritzako Erakunde 150 lurraldez osatuta dago. 800 lagun inguruko Idazkaritzak lurraldeei laguntzen die nazioarteko itunak negoziatzeko, beren arteko merkataritza irekitzeko. Idazkaritzaren buruan zuzendari nagusia dago, Pascal Lamy frantziarra alegia. Bere kabineteko zuzendari bezala, bitartekari edo aholkulari lanean laguntzen diot, helburu bakar batekin: 150 lurralde ados jartzea.

Zure postutik nola ikusten duzu Euskal Herriko ekonomia egoera?

Euskal Herriko ekonomia dinamikoa da oso. Azken hamarkadetan ekoizpena teknologia aldaketetara egokitu da. Eraberri egin da hezkuntza sistema on baten laguntzarekin. Sistema honek zenbait arlotan teknikarien prestakuntza sustatu du. Esate baterako, metalean, makina-erramintan edota informazio teknologian. MCC Enpresa taldea Txinara eta Indiara iritsi da dagoeneko eta horrek erakusten du euskal industria gai dela aire berrietara egokitzeko.

Oro har, nazioarteko egoera ekonomikoa hobetuz doala esango al zenuke?

Munduko ekonomia modu iraunkorrean hazten ari da, Europaren eta AEBetan dagoen hazkunde moderatuari esker, baina bi motore erraldoirekin: India eta Txina. Honek pobrezia ikaragarri murriztu du. 80. hamarkadaren hasieratik hona, pobrezia %50 urritu da Asian. Azken hamarkadan milioika pertsona erabateko pobreziatik atera dira. Hala ere, oraindik milioika pertsona egunean dolar bat baino gutxiagoarekin bizi da. Ekonomiek hazten jarraitu behar dute baina batez ere aberastasuna hobeto banatu behar da pobrezia murrizten jarraitu ahal izateko.



HITZA

Herrialde aberats eta txiroen arteko diferentzia gero eta handiagoa da. Hau globalizazioaren errua dela uste al duzu?

Lehen aipatu bezala, munduan herri txiro gutxiago egonagatik ere, aberatsen eta txiroen arteko aldea —baita gure herrialdearen barruan ere— gero eta zabalagoa da. Garbi dago hazkunde eta aberastasuna sortzea ez dela nahikoa. Horri merkataritzak laguntzen dio, modu justuagoan banatu behar da. Lurraldeek etxetiar eta birbanatzaile diren politikak behar dituzte, gizarte maila guztiek globalizaziotik onura atera dezaten.

Munduko Merkataritzaren Erakundeak merkataritza librez hitz egiten du, baina

honen baitan dauden estatu askotan, Gobernuak pisu handia du ekonomian. Esate baterako, AEBetan, diru publikoaren zati bat defentsarako, armak erosteko...

MME merkataritzak dituen oztupoak murrizten saiatzen da, baita merkataritza desitsuratzeko erabilten diren neurrian. Lurralde bakoitzaren barnean eta kanpoko eraginik ez duena ez da Munduko Merkataritz Erakundearen interesgarria.

Globalizazioaren aurkako

mugimenduek gogor kritikatzuten dute MME. Zer esango zenieke hauei?

Globalizazioaren aurkako mugimenduek funtsezkoa den betebeharrak bat betetzen dute: bigarren egoreak azalera-tzea. Nik kritika bat egingo nieke eta zera da: gehienetan kritika besterik ez dutela egiten, inongo irtenbiderik proposatu gabe. Adibide zehatz bat jarriko dut: GKE, askok gure itsasoko zenbait espezieren desagertzea areagotzen ari den gehiegizko ustiatzea gogor kritikatu dute. MME-n kritika horretatik abiatuta nazioarteko itun bat osatzen ari gara arrantzak jasotzen dituen diru laguntzak kontrolatzeko, ustiatze horri aurre egiteko. Hau da, esan eta egin.

KULTURA ▶

'Argi Beltz' aurkeztuko du Tirri Tarrak gaur Tolosako Orfeoiarekin

Gaur gauean, Euskal Herria plazan 90 musikari inguruk «emanaldi berritzaile eta ezberdina» eskainiko dute

ESTI EZEIZA

Tolosako Orfeoiak sustatuta, Tirri Tarraren *Argi Beltza* saioa ikusi ahal izango da gaur 23:00etan, Euskal Herria plazan. Beste zenbait herritan abesbatza ezberdinekin taularatu dute emanaldi hau Tirri Tarrakoek, eta arrakasta izan du denetan ere. Tolosako Orfeoiko 60 kidek eta Tirri Tarrako 30ek hartuko dute parte emanaldian.

Argi Beltza ikuskizun «ausarta» da. Soinu berritzailea du eta bertan musika estilo ezberdinak biltzen dituzte. Lengoaia klasikoa oraingo ildo modernoetatik barrena murgilduz. Tradizioa eta berrikuntza, Tolosako Orfeoiak fusionatzen dituen bi elementuak dira, eta horregatik egokitzat ikusi dute bi estilo hauek batzea. Tirri Tarra duela 23 urte sortu zen fanfarre taldea da, baina denborarekin garapena izan du, eta egun ez da ohiko fanfarre taldea. Etengabeko garapen honen azken etapa 1999an hasi



Tolosako Orfeoiari ariko da Tirri Tarrarekin batera. I. TERRADILLOS

zuten, *RE+FA* (Elkarlanean) diskoa kaleratu zutenean. Lan honek bere jardueraren aldaketa erradikala suposatu zuen, sustrai folklorikoa zuen Tirri Tarra desagertuz, eta musika garaikideko talde berria jaioaz.

Kontzertuko erreperitorioa

taldeko kide den Sergio Zurutzak gauzatu du. Abesbatzak lan hauen zati pilofonikoak hornitzen ditu. Tolosako Orfeoiak bi lanetan hartuko du parte: *Sin palabras* eta *Fobia*. Ignacio Ruiz de Alegriaren esanetan, «dan laburrak baina eduki interesgarria dutenak» dira.

IGNACIO R. DE ALEGRIA ▶ TOLOSAKO ORFEOIKO ZUZENDARIA

«Abesbatzaren kontzeptu ezberdin bat transmititu nahi dugu»

Ekonomilaria ogibidez, Tolosako Orfeoiko zuzendari da Ignacio Ruiz de Alegria (Donostia, 1955). Gustura eta ilusioz ageri da proiektu berri honen aurrean.

Nondik sortu zen kontzertu hau egitearen egitasmoa?

Tirri Tarra bira batean dago, non toki ezberdinetan kontzertuak ematen dituen abesbatzekin. Hala, duela hilabete batzuk horrelako kontzertu bat egiteko hitz egiten aritu ginen. Honenbestez, sanjoanek zirela eta akordio batera iritsi ginen.

Zel in da kontzertuaren helburua?

Kontzertu ezberdin bat egin nahi dugu, musika modernora, rock sinfonikora gehiago hurbiltzen dena. Oso ongi idatzitako obrak joko dira modu berezian. Zerbait oso ezberdina izango da, eta hau oso garrantzitsua da gure interes berritzailearekiko. Abesbatzaren beste ikuspuntu bat erakutsi nahi dugu, edo gutxienez, modernitateari islatu gazteei.

Nolako izango da kontzertua?

Kanpoan izango da. Tirri Tarra metalezko eta harizko orkestretz osatua dago. Klasikoak



E. EZEIZA

dira, baina musika elektronikoa nagusitzen da, hainbat osagaiekin.

Beraz, ez da orfeoi baten kontzertu klasikoa izango.

Ez, Tolosako Orfeoiak ahotsekin osatzen du kontzertu moderno hau. Planteamendu oso ezberdina du, eta abesbatzaren kontzeptu ezberdina transmititu nahi du, erakutsiz, abesbatza batek gehiago eman dezakeela. Ikusle goari dagokionean, gaueko hamaiketan izatean, anitza izango dela espero dugu. ◀

Dietetika eta Belardenda
ZAINBERRI
Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

ELECTRICIDAD ELUSTONDO
• Argiztapena
• Inst. Elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak eta bakarkakoak
• Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..
Iurre Auzoa, 4 • TOLOSA • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb, 13 • Tel.: 943 88 95 71 • BEASAIN

ZERBITZU BULEGOA
AIXA
Nominak - Kontabilitateak
Zergak - Autonomoak
Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk
TOLOSA
Tel.: 943 65 03 03
Faxa.: 943 65 22 22
mjhuarte@euskalnet.net

Marcel REPARADOREKIN ZABAK
EDERGINTZA Santa Klara, 9
TOLOSA
943 671938

'ZURE UMEEN DENDA'
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak
zakuak • maindireak • ohe estalkiak
HAURDUNENTZAKO ARROPA • HAUR MODA 0-2 URTE ONDO PASA SANJOANAK!
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

KIKATZA
PINTXOAK - BOKATAK
ANOAK
PLATER KONBINATUAK
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa
Tel.: 943 67 49 13

ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR
PAGOLA ERAIKUNTZAK, S.L.
Izaskun Bidea, 7 behea
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80
20400 TOLOSA

FESTAK ONDO PASA!
TOLARGI
Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz
Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

TOLOSA ▶ NATURA

Naturaldiaren baitan, Molina Nobel Saria

'Mundua berotzen' hitzaldia emango du astelehenean
Chillida-Lekun, Tolosako udaletxean harrera egin ondoren

NEREA URBIZU

Mario Molina kimikako Nobel sariduna Tolosa izango da astelehenean. Naturaldiak antolatutako hitzaldien baitan, astelehenean Chillida-Lekun *Mundua berotzen* izendatu duen hitzaldia emango du 19:30ean. Hala eman zuten jakitera atzoko prentsurrekoan, Luis Maria Oyarbide Diputazioko Garaipen Eramangarriko Saileko zuzendariak, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Luis Chillida Chillida-Leku museoko komunikazio-zuzendariak eta Shole Martin Naturaldia jardunaldien zuzendariak.

Astelehenean 11:00etan udaletxean Mario Molina kimikari handiari harrera egingo diote eta *Agurra* dantzatuko diote. Horrez gain, Koldobika Jauregi eskulturgileak lan bat emango dio. Arratsaldean, be-

rriz, Luis Mari Oyarbide aurkeztuko duen hitzaldia hasiko da, eta moderatzaile, berriz, Luis Balairon fisiko eta meteorologoa izango da. Bertara joateko telefono zenbaki batera deitu behar da, izena emanez: 943 335963.

Bestalde, Shole Martinek orain artekoaren balantze «positibo» egin du, «pozik» dagoela esanez. «Orain arteko hitzaldietara joan den jendea etxera bueltatu da zerbait egin behar dela pentsatuz», datu esanguratsu asko eman baituzte orain artekoetan.

Ozono geruzaren ikerlaria

Mario Molina mexikarrak 1995. urtean kimikako Nobel Saria jaso zuen, ozono geruzaren inguruko ikerketak direla medio. Molinak ozono geruzako zuloa deskubritu zuen eta gerotzik



Mario Molina kimikaria. HITZA

lan handia egin du arazo larri honen inguruan. Izen handiko kimikaria, beraz, interes handiko gai batez, eta gehien kontrolatzen duenaren eskutik.

HITZALDIA ▶

Gaia. *Mundua berotzen.*
Hizlaria. Mario Molina.
Eguna. Astelehena.
Ordua. 19:30.
Herria. Hernani.
Tokia. Chillida-Lekuko Zabalaga baserrian.
Antolatzailea. Naturgintza Fundazioa eta Tolosako Udala.
Izen-ematea. 943 335963.

IKAZTEGIETA ▶

Ariketa fisikoen beharraz ariko dira gaur

Gaur hitzaldi bat izango da Ikaztegieta liburutegian, 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta. Gaia honakoa izango da: *Mugitu zaituzte, ez zara damutuko*. Programa hau da: gorputz-arietak egiteak dituen mesedeak eta abantailak, gomendioak eta hainbat gorputz-arieta mota, gorputz-arieteki buruzko arreta-neurriak eta kontraindikazioak, eta abar.

TOLOSA ▶

Laskoraingo ikasleen bazkaria, gaur

Laskorain ikastolako 2. batxillergoko ikasleek bazkaria egingo dute gaur Sakramentinoko patioan. Aurten 72 ikaslek selektibitate gaitu dute eta irakasleek antolatutako bazkariarekin agurra emango diete etorkizuneko gizartea osatuko dutenei. Tarta eta kafea hartzeko gonbitea luzatu dute Laskoraingoek.

POLITIKA ▶

Bilboko manifestaziorako autobusak

EAE-ANVK bihar manifestazioa antolatu du Bilbon, *Prozesu demokratikoaren alde* lelopean. Tolosako autobusa 15:30ean abiatuko da San Frantziskotik. Eskualdeko hainbat herritatik ere izango da autobusa, Villabonatik, Amezetatik, Anoetatik eta Alegiatik, besteak beste.

ADUNA ▶

HITZA Pilota Txapelketako eskolarren finalak

Gaur, Adunako pilotalekuan IV. Hitzza Pilota Txapelketako eskolar mailako finalak jokatuko dituzte 19:30etik aurrera. Benjaminak, Martinez-Errandonea eta Peña-Iturbe (Erniope). Ondoren, Iribarría-Goitia eta Mujika-Iruretagoiena (Erniope) alebinak izango dira, eta azkenik, Azketa-Arratibel eta Gailurralde-Goitia (Zazpi-Iturri) ariko dira.

IKAZTEGIETA ▶

'Cuatro' telebista kanala ikusteko sintonizazioa

Ikaztegieta koentzat Retevisión enpresak honako abisua eman du: astelehenean aurrera, *Cuatro* telebista kanala ondo ikusteko, etxeko telebistak UHF 54 kanalera sintonizatu beharko dira. Honela, interferentzia arazoak ez dira izango.

IRURA ▶

Gaztelekuko antzerki egileen emanaldia, gaur

Gaur, Iruran, 19:00etan Gaztelekuko antzerki ikastaroa egin dutenek emanaldia egingo dute plazan. Honela, ikasturteari amaiera emango diote. Eguraldia txarra bada, pilotalekuan egingo dute emanaldia.

AN JUAN
al berriak hontan
kainak 23
Errebot
22:00

OINKARI eta OIÑARGI
★ DANTZA TALDEAK ★
ERESARGI ABESBATZA

Amasa-Villabona

ZABALA
KAFEAK
Nafarroa etorbidea, 2 • TOLOSA • 943 65 47 95
Nagusi enparantza, 2 • ORDIZIA • 943 88 29 88

aldama_tapia
aholkulariak
Tel.: 943 65 03 75
Faxa: 943 65 52 06
Foruen Etorbidea, 7 • 20400_TOLOSA_Gipuzkoa
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

ZABALA
DESGUAZEA
• Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
• Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.
Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

in→
argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arozak
gremioen koordinazioa
eskaiolista & dekoratzaileak
zortak & leihoak
altzariak & sukaldeak
Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40
Sanjoanak ondo pasa!

intxurre
taberna
zabalik!

Herritarren borondatea errespetatu!
Tolosa

ALBERTO CID BRAVO ▶ TABERNARIA



I. GARCIA

«Maitasunez egitea da kafe on baten lehen ezaugarria»

Villabonako O'baba tabernako Alberto Cid Bravok kafe lehiaketan izan da

I. GARCIA

Alberto Cid Bravok (Caceres, Espainia, 1981) Villabonako O'baba tabernan lan egiten du eta Gipuzkoako txapelketan bigarrena izan da kafe lehiaketan eta EAEkoan finalean aritu da.

Zer egin behar zenuten kafe lehiaketa horretan?

Bi expresso [kafe hutsa], bi cappuccino esne emulsionatuarekin eta kafea oinarri duten bi koktel alkoholik gabe eta beste bi alkoholarekin atera behar izan nituen. Horrez gain garbiketa nola egiten zen ere kontuan hartzen zen.

Zer ezaugarri ditu kafe on batek?

Lehenengo maitasunez egin behar da. Gero kafea bera nolakoa den ere garrantzitsua da. Guk tabernan %100 arabiar motakoa erabiltzen dugu, %60 Nikaragua eta Hondurasekoa eta %40a Brasilekoa. Ehotze puntua ere kontuan hartu behar da eta kafea makinatik erortzean xaguren butaneren forma izan behar du, hau da, ez da guztiz zuzen erori behar.

Bezeroek garrantzia ematen diote kafea nolakoa den?

PERTSONA BAT BEHAR DA FRESADORAN LAN EGITEKO ASTEASUN.
DEITU: 652 72 41 69

Bai, jendeak taberna aukeratzeko du kafearen arabera.

Zuri gustatzen zaizu, ezta?

Bai, oso kafezalea naiz. Halere, denoi ez zaigu kafe berdina gustatzen.

Datorren urtean berriro saiatuko zara?

Bai, segurua. Lau aditu aholkuak ematen aritu zaizkit eta asko ikasi dut esperientzia honekin. ◀

TOLOSA ▶ POLITIKA

EAE: «Miseria morala erakutsi dute aulkiak lapurtu dituztenek»

EAE-ANVko lau hautetsiek udal osaketaren balantzea egin dute; «dagozkigun aulkiak etengabe» eskatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Tolosako EAE-ANVko lau hautetsiek —Antton Izagirre, Eider Elduaian, Hektor Espin eta Silvana Ostiza— udal osaketan gertaturikoari buruzko balantzea egin zuten atzo prentsaurreko batean. Egun horretan «ez dagozkien aulkiak lapurtzen dituztenen miseria morala, egia ezkatutzearen medio publikoak, guztionak, lotsagabe manipulatzeko dituztenen miseria morala» erakutsi zela azaldu zuten.

Larunbatean albo batera «herritarrak, elkarrizketa eta akordioak deia, bakerako proposamena» eta, bestera, «botere zalekeria, konponbidearen ukazioa eta herritarrak jipoitzera etorritako Ertzaintza» izan zirela esan zuten. EAEko hautetsiek demokrazia aldarrikatzera joan zirela azaldu zuten, herriaren borondatea errespetatua izan dadin galdegitera, elkarrizketa eta akordioak bideak eskaintzera. «Azken batean, geura



EAEko lau hautetsiek emandako prentsurrekoaren une bat. I. GARCIA

dena, ez gehiago baina inolaz ere gutxiago, erreklamatzera etorri ginen, hau da, herritarren bozen arabera dagozkigun lau zinegotzi aulkiak».

Udal osaketan herritarrek emandako babesak «hunkitu» egin dituztela eta «harrotasuna adierazi nahi dugu lau urtetan gure herriaren zatirik duinena ordezkatzeko aukera eman dигutelako». Datozen lau urtetan «etengabe gure zinegotzi aulkiak» aldarrikatuko dituztela esan zuten eta elkarrizketa eta akordioaren bidez «tolosar

guztiak Udal honetan ordezkatuak izan daitezten» eskua luzatuko dutela adierazi zuten. Bestalde, San Joan jaiek «alaitasunez eta aldarrikapenari leku eginez» ospa dituzaten dei egin zieten herritarrei.

Bestalde, bihar Bilbon EAE-ANVk *Konponbide demokratikoaren alde* deitutako manifestazioa joateko gonbita luzatu zuten, eta bihar ere, 19:00etan, Arramele zubian *Herritarren borondatea errespetatu* lelopean egingo den elkarretaratzera ere dei egin zuten.

Sam Kartazalak Poltsak
Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 40 00 • Faxe. 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

SEGUROS BILBAO
Zumardi
aholkularitza integrala
San Joan festa zioriontsuak opa dizkizu
Laskurain, 8 behe • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel/Faxe: 943 65 18 77

GOIERRIKO HITZA-K KAZETARIA behar du

► Eskatzen da:

- Kazetaritza arloko ezagutza izatea, antzeko lanetan aritua izatea eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz ondo egitea.
- Izaera dinamikoa izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, bidali curriculumak, **ekainaren 27a** baino lehen, helbide honetara:

Helbide elektronikoa: goierri@goierrikohitza.info

Posta helbidea: **Urbalde plaza, 7, behe. 20200 BEASAIN**

ZORIONAK TOLOSA
SANJOANETAN
EUSKARAZ BIZI

CHELO ROMEO ▶ IBARRAKO ALKATEA

«Azken lau urteak ahaztu eta etapa berri bat hastea proposatuko diet alderdiei»

Momentuz Udala geratu den bezala jarraituko dute; «gure laugarren zinegotziak dimititzea ez dago pentsatua»

ASIER IMAZ

Ekainaren 16an, larunbatean, Donostian egindako Udal batzarrean, berriro Chelo Romeok (Donostia, 1956) lortu zuen Ibarako Alkatetza bere alderdiko botuei esker.

Karguak zergatik hartu zenuen Donostian?

Alderdi guztiak elkartu ginen eta Gazte Festak zirenez egun horretan, norgehiagoka arrarorik ez gertatzeko, ziurtasunagatik eta istorio arraroak ekiditeko, Gipuzkoako Foru Aldundira joatea erabaki genuen. Baina ez zen izan, ilegalizatutako jendeak istorioaren bat egin behar zuelako hemen, liskarrak ekiditeko baizik.

Zer gertatu zen bertan?

Bakoitzak bere zerrendaburua bozkatu zuen, eta ondorioz zerrenda bozkatuenaren hautagaia irten zen; kasu honetan ni. **Zer iruditzen zaizu ilegalizazioa?**

Alderdien Legea hasieratik egon zen gaizki. Inoiz ez da hona ilegalizazioa, eta demokrazioan denak egon beharko genuke. Hala eta guztiz ere, Ibarren kasuan gauza bat ikusten dut; 2003. urtean zerrenda guztiak ilegalizatu zituzten, orain berriz leku batzuetan ez dira ilegalizatuak izan eta besteetan bai. Ez dakit zergatik Ibarren ez dira kontuz ibili zerrendak osatzerakoan. Ez dakit zer negoziatzen egon diren baina, ez dut ulertzen zergatik konfidatu diren horrenbeste Espainiako Gobernuan. Ez zait gustatzen eta amorrazioa ematen dit. Udalean egon behar zu-



A. IMAZ

ten baina nire ustez, EAEn zerrenden gainetik dauden euren jendeari ez zaiola interesatu Ibarren legalak izatea. Bi zerrenda egin behar baldin badituzu hasieratik eta jakinda bat ilegalizatu egingo dizutela, zergatik egiten dituzu bi, egin bakarra eta ongi egin. Beste lekuetan horrela egin dute, Anoeta, Villabona, Arrasate, Azpeitia eta Zumaian horrela egin dute. Baina Ibarren ez, herri honetan beti dago ez dakit zer, baina beti badago zer bait.

EAEn 710 bozkek izango al dute ordezkapenik Udalean?

Momentuz geratu den bezala jarraituko dugu. Gure laugarrenak dimititzea ez dago pentsatua, gero agian alderdiak zer bait pentsatuko du edo ez, ez dakit. Alderdien Legeagatik edo su-etena hausteagatik edo berdin zait zergatik, baina ez daude. Ni ez naiz besteek hartutako erabakiengatik ardura sentitzen, ni ez bainaiz gobernuarekin elkarriketan egon eta ez dakit ongi zer hitzegin den. Niri galdetu izan bali-

rate, horrenbeste kritikakzen nautenez; aizu, lista honetan agian lau, kutsatuak egon daitezke. Orain esan dudan berdina esango nien haiei, hau da, zerrenda ongi garbitzeko, jende faltarik ez baituzue. Ez zait gustatzen batzuk zikinak eta besteak garbiak daudela esatea baina niri inor ez zait etorri galdezka.

Nola osatuko duzu gobernu?

Denen parte-hartzea eta inplikazioa bilatuko ditut garrantzitsuak diren proiektuak aurrera eramateko. EAren berriz hasiteko proposamena egingo dut, Ibarrek merezi duelako. Orain arteko 4 urteak ahaztu eta etapa berri batekin hastea.

Hauteskunde hauetan zerrendaburu bakarra izan da euskal-hiztuna?

Historiak guztiok markatu gaitu eta gu horren isla da gara. Horrek ez du esan nahi gu nazionalistak ez garenik. Gure adinean ez da hain erraza, gure semeek hitz egiten duten modura ikastea.

AITOR GARMENDIA ▶ EAE-REN ZERRENDABURUA

«Kutsatuen inguruko eztabaida faltsua da»

EAEk baldintzak kontuan hartuta balorazio «positiboa» egiten du

A. IMAZ

Aitor Garmendia (Ibarra, 1972) legez kanpo geratu zen Ibarako EAEn zerrendaburua da. Hauteskundeetan zerrenda bozkatuena izan zen, 710 botorekin.

Zen da EAEn hauteskunde balorazioa?

Baldintza hauetan aurkeztuta 710 bozka jasotzea positiboa dela iruditzen zaigu. Prozesuari bai esateko eta herriak zer nahi duen isladatzeko balio izan dute. Baina egia esan, aurrera begira lan egiteko oztopo asko azaltzen zaizkigu. Hauteskundeetan lortutako bost zinegotziak lortuko ez bagenu ere, batzuk lortzeko ilusioa bageneukan elkarrizketa bidez. Horretan saiatu gara buru-belarri 16ra bitarte. Baina ikusi dugu korapiloak Madrildik jarri arren, bertakok ere oso ongi aprobetxatzen dutela. Nahiago izan dute korapiloa askatzen saiatu baino, mantentzen jarraitu.

Herriar kutsatuak?

Eztabaida oso faltsua iruditzen zait eta ulertzeko adibide jarriko dut. Emakume baten bortsaketa jasaten denean, orain dela urte batzuk behintzat, nahiko ohikoa izaten zen emakumearen gain jartzea ardua; begira zein izan den, nola jantzita ibiltzen zen, gona motzegiak eramaten zituen... Kasu honetan ere, pertsona batzuk berdina egiten ari direla iruditzen zaigu; gure eskubide politiko eta zibilak bortsatu dituzte, erabat esku-biderik gabe utzi gaituzte eta hemen jende bat planteatzen ari den diskurtsoa da. Hau da,



A. IMAZ

ideologikoki era honetara jantzi behar genuela edo beste era batetara, edo zerrendetan nor joan behar zuen eta nor ez. Guri iruditzen zaigu bortsaketa baten erruduna beti bortsaketa dela eta inoiz ez biktima. Kasu honetan argi dago bortsaketa Madrigo gobernu dela. Bortsaketa horretaz hainbat bortsaketaile txiki aprobetxatu direla herrietan ere garbi dago. Alderdi legearen ardura ez diegu erantzunkizuna zuritzeko. Guk ardura hori, euren jarrairena, beraien gain jartzen dugu. Ezin dute ardura biktimaren gainean jarri euren erantzunkizuna zuritzeko.

Zerrendaburu euskal hiztun bakarra zeu izan zara Ibarren?

%70a herri honetan euskal hiztuna da. Udal ordezkariak ere errealitate hori erantzun beharko liokete. Alderdi Legearen zeharkako beste ondorio bat da hau; herri euskaldun baten euskaraz ez dakien jendea agintean egotea edo herria ezagutzen ez duenak egotea agintean. ◀

hilberria ▶

Ignacia Iturrioz Astigarraga

Atzo hil zen, Zarautzen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Bere senarra: Julian Cortajarena; seme-alabak: Felix eta Pilarxo, Begoña eta Juan Modesto; bilobak: Ane, Elen, Felipe, Bertol eta Eli, Iera; anai-arrebak, eskon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Zarauzko SANTA MARIA LA REAL parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Santa Marina 18-2. Ezk.

Oharra ▶ hilberria Zarauzko beilalegian dago

ZARAUTZ, 2007eko ekainaren 22a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ SEGA



Jon Kanflanka biserearekin, 2006ko Nafarroako Txapelketan. M. SOROA

Nafarroako Txapelketako finala, bihar

Jon Kanflanka Dabid Mariñelarenaren aurka ariko da, Basa-Kabin, 12:00etan

NAIARA GARZIA

Bihar Basa-Kabin jokatu du den Nafarroako Txapelketan Jon Kanflanka leitzarria David Mariñelarenaren aurka ariko da. Kanflanka segalariak adierazi duenez, «Nafarroako Segala Txapelketan kila egiten dugu lan». 45 minutuan zeinek belar gehiago moztu, hori izanen da egin beharko duten proba.

Nafarroako Segala Txapelketan jardunaldi bakarra egiten dutela azaldu du Jon Kanflankak. «Nafarroan bi segalari besterik ez garen, zuzenean finala jokatzeko dugu». Gipuzkoan, berriz, 5 segalari daude.

Kanflanka 2005. urtean hasi zen segala txapelketetan parte hartzen eta ordutik bere burua «hobetuz» ikusten duela adierazi du. «Dabid Mariñelarenak 9 urte badaramatza eta esperientzia handia dauka. Zaila izanen da, baina saiatu egingo gara».

Honetaz gain, Kanflankak Berastegin izan zen Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuen, maiatzaren 26an, baita

Tolosan ekainaren 16an egin zen Euskal Herriko Txapelketan ere. «Azkeneko hau nazioarteko erakoa izan zen. 100 metro moztu behar ziren eta sailkatutako Austriarra joaten zen. Azkartasuna eta ongi ebakitzea zen txapelketan honetan kontuan hartzen zuten».

Kanflankak prestatzaile bat dauka. «Berak urteko entrenamendua jartzen dit. Euskal Herriko Txapelketan 30 minutu ziren, baina Nafarroakoan 45 direnez, entrenamendu luzexagoak egin ditub».

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Tolosan, 3 logela, egongela, 2 bainugelara eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. Ikuspegi ederrak. 44.000.000 pezeta. Harremanetarako telefono zenbakia: 626 75 27 44.
Etxebizitza. Alegia, guztiz hornituriko etxebizitza. Bizitzera sartzeko moduan. 685 73 35 62.

Autoa. Renault Megane Grand Tour. 1.5 DCI. 100 zaldi. 44.000 kilometro. 685 73 35 62.

Sarrera. Live Festival jaialdirako ekainaren 22ko sarrera saltzen dut prezio onean. Interesatuak deitu 636 17 16 24ra.

ALOKAIRUA

Karabana. Errioxako kanping batean karabana alokatzen da. Guztiz erosoa. 669 70 68 70.

LEITZA ▶

XV. Plazako Txapelketako final laurdenak bihar, plazan

Mikel Olazabalek Herri Arteko Txapelketan jokatu du, nagusien mailan



XIV. Plazako Txapelketa. J.A.

ERREDAKZIOA

Bihar Leitzan XV. Plazako Txapelketako final-laurdenak jokatu dituzte goizez eta arratsaldean. Goizean Larraia eta Gartzia, Olano eta Loyarteren aurka ariko dira alde batetik, eta bestetik, Mariñelarena eta Olano, Aldaia eta Bengoetxearen aurka. Arratsaldean beste bi final-laurdenak jokatu dituzte, 15:00etan. Norgehiagoka honetan Zeballos eta Iriarte, Alduntzin eta Sagastibeltzaren aurka lehiatuko dira.

Makazaga anaiak noren aurka lehiatuko diren atzo iluntzean jokatuak beste norgehiagoka batean erabaki zen. Hemen Arangoa eta Aburuza, Andueza eta Aizagirreraren aurka lehiatu ziren.

Mikel Olazabal

Bestalde, Herri Arteko Txapelketan asteburuan jokatuko diren finalerdietan Mikel Olazabalek jokatu du nagusien mailan.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Hurrengo astean egingo dute Udalaren osaketa

Ekitaldia «egoera normalean» igarotzeko Ertzaintzarekin hitz egingo du Otaolak

ERREDAKZIOA

Regina Otaolak Lizartzako alkategaiak Lizartzako Udala hurrengo astean osatu duela azaldu zuen atzo. Zinegotzi berriek zinegotzi-aktak jaso eta gero egingen dute ekitaldia, Lizartzako udaletxean bertan.

Donostian emandako prentsaurreko batean Otaolak zera azaldu zuen, atzo amaitzen zela aukeraturako zinegotzi berriei helegiteak aurkezteko 48 ordutako epea, hasiera batean Euskal Herriatik kanpokoak ziren zinegotzi horien ordezkari aukeratuak izan direnei, alegia. 48 ordu hauek bete ondoren, PPren Lizartzako 7 zinegotziek Tolosako Hautes Batzarrak emandako zinegotzi-aktak jaso eta azkenik, Lizartzako Udala eratu dute Lizartzan bertan.

PPk Lizartzan 27 botorekin irabazi zituen hauteskundeak, herrian 601 boto-emaile egon arren, bera izan baitzen EAE-ANV ilegalizatu ondoren aurkeztu zen zerrenda bakarra. EAJK eta EAK, aurreko legegaldian Udalean egon arren, ez aurkezte erabaki zuten.

Regina Otaola, beraz, Gipuzkoako PPren lehenengo alkatea bihurtuko da, eta Joseba



Lizartzako udaletxea. I. ETXEBESTE

Egibar Lizartzako alkatea Udala osatzeko osoko bilkurara deialdia egiteko prest dagoela azaldu du. «Joseba Egibarrek ez du Udala eratzeko denean nahitaz hor egon beharrik», gehitu zuen Regina Otaolak.

Ertzaintza

Honetaz gain, Joseba Egibarrek eta PPK Barne Sailarekin hartu-emanak izan zituztela adierazi zuen Otaolak, aurreko larunbatean Lizartzako Udala eratu zitekeelako, eta Ertzaintzarekin hitz egingo dutela berretsi zuen, osoko bilkura egiten denean, bilera «egoera normalean» egin dadin.

MAIXINA Sanjoanek ondo pasa!!
Etxekotresna elektrikoek konponketa
Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

XOILAN, S.L.
Telf.-Faxa: 943 67 06 26
659 04 57 65
Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak
- lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zuruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizen garbiketa orokorrean

BANAKETA ENPRESA batek:

- Banatzaileak behar ditu, Hernani aldean.
- Bestalde, udako ordezkapenak egiteko banatzaileak behar ditugu, bereziki Oarsoaldean, Bergaran, Zumaian eta Busturrian.

Lan-baldintzak:

- Astean sei egun, Asteartetik igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara 943 30 43 41

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ikaztegieta. Mugitu zaitez, ez zara damutuko hitzaldia 17:00etan liburategian. Programa: Gorputz-ariketak egiteak dituen mesedeak eta abantailak, gomendioak eta hainbat gorputz-ariketa mota, gorputz-ariketei buruzko arreta-neurriak eta kontraindikazioak, eta abar. **Irura.** Irurako gaztelekuan antolatu duten antzerki ikastaroko emanaldia egingo dute plazan 19:30ean. Eguraldi txarra bada frontoian egingo dute. **Tolosa.** Et Incarnatus orkestrak VIII. solstizio kontzertua eskainiko du Urkizuko Iraola zuloan, 19:30ean. **Tolosa.** 17:30ean Zerkausian *Amama Pantxika* haur ikuskizuna; 18:00etan Iraunkorrek txaranga kalez kale; 19:00etan Suziria udalbelako balkoitik; erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin; eta 20:00etan Leidor antzokian Tic-Tac udal antzerki tailerreko emanaldia. **Tolosa.** 23:00etan Fronton kafetegian kontzertua Atila y los Unos taldearen eskutik; oru berean Euskal Herria plazan kontzertua Tirri Tarra, Tolosako Orfeoia eta Sotto Voce Orkestrarekin eta 24:00etan Plaza Berrian disko jaia Abiba. **Zizurkil.** San Joan egunaren bezperako suan San Joan Dantza egiteko ikasi nahi dutenek, entsegua izango dute Pedro Maria Otaño eskolan 18:00etan. Herriar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Lekunberri. Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.
 Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

IRRATIA

Txolarre irrata (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina; eguraldia Joxe Landarekin, HitzaZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Asteko onena.
 21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Doinu ezberdinak batean

TOLOSA ▶ Sanjoanetako egitarauaren baitan askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da; kontzertuek pisu garrantzitsua izango dute



Maddi Oihenart zuberotarra eta Et Incarnatus Orkestra Urkizun, solstizio gauean. HITZA/J. SAIZAR

ERREDAKZIOA

Musika eskaintza oparotzeko aukera izango da asteburuan San Joan jaien egitarauaren baitan. Ondorengoak dira ekitaldi garrantzitsuetako batzuk:

Et Incarnatus Orkestra (Gaur, 19:30). Urtero bezala Et Incarnatus Orkestrak udako solstizioa dela eta, kontzertua eskainiko du. Iazko leku berean izango da. Urkizua gainean, Iraolako zuloa izeneko lekuan (eguraldi txarra egiten badu,

Urkizuko ermitan). Kontzertuaren amaieran, jatekoa eta edatekoa eskainiko dute bertarantzaren direnzentzat. **Atila y los Unos (Gaur, Fronton kafetegian, 23:00).** Hogei urte daramatzate eskenatoki gainean Atila y los Unos musikari beterranoek. Oraindik ere hasierako taldekideak jarraitzen dute taldean: Jesus (Atila), abeslaria; Javi, baxua; Iñaki, gitarrari; Xabi, bateria; Koldo, teklaria; eta Rober, rototoiekin. **Abiba diskojaia (Gaur, Plaza Berrian, 24:00).** Gaztetxoenei zuzenduta, musikaz gozatzeko

aukera izango da goizaldera arte. **Maddi Oihenart (Bihar, Berdura Plazan, 24:00).** Abeslari zuberotarrak urte asko daramatza kantatzen, eta oraingoa disko berria aurkeztera dator. *Hari biru* du izena, eta egitasmo honetan tolosarrak ere badaude. Zenbait abesti Oihenartek berak sortutakoak dira, eta beste zenbait Juantxo Zeberriok. Halaber, tolosarrikiezia guztietako moldaketak ere egin ditu. Bestalde, kantatzen dituen bi abesti Karlos Linazasorok sortutako olerkietan oi-

narritzen dira. Diskoan zein zuzenean Maddirekin batera Juantxo Zeberio (piano) eta Txema Zeberio (kontrabaxua) tolosarrak eta Pello Ramirez ordiziarra aritzen dira. **Delorean (Etzi, Plaza Berrian, 24:00).** Gipuzkoako nazioarteko talde underground ezagunena dela esan daiteke. Zarauzko lau lagunek osatzen dute punk izpiritua duen taldea. **Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko Udal Txistulari Bandak (Etzi, Plaza Berrian, 13:00).** Urtero etortzen dira txistulari iruñarrak sanjoanetara eta joaten dira txistulari tolosarrak sanferminetara. Txistulari bandek lehen zatia egingo dute eta ondoren Musika Bandarekin Tomas Acebal *El bala* biribilketa eskainiko dute. Bigarren zatian Musika Bandak Duke Ellington-en omenezko obra eta *Charleston forever* interpretatuko ditu, besteak beste. **Isidro Larrañaga Akordeo Orkestra (Astelehena, Berdura Plazan, 20:30).** Urteroko kontzertu berezia eskainiko dute akordeoilariek. **Ertzaintzaren Musika Banda (Astelehena, Berdura Plazan, 12:00).** Berrito ere, urte batzuen ostean, herriko jaietan zabalduko dituzte euren doinuak.

EKAINAK 24 **ZEZEN-ERREKORTARIEN 3. LEHIAKETA** **ARRATSALDEKO 7:30**
GAUR EGUNeko ESPEZIALISTA HOBERENEKIN "CASA PRUDENCIO"
Tendidu orokorra: 15 euro • Umeak: 10 euro
SALMENTA PUBLIKO OROKORRA
 Ekainaren 14tik aurrera zezen plazako takilan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara
BESTE SALMENTA TOKIAK
TOLOSA
 Bar "Asteasuarra" 943 673 186
 Café Bar "Frontón" 943 651 470
 Asador "Orue" 943 651 911
 Bar "Cantábrico" 943 653 987
 Bar "66" 943 671 937
SAN SEBASTIAN
 Bar Antonio 943 429 815 c/ Bergara
 Bar Aurrera La Espiga 943 421 423 c/ San Marcial
BAIONA Office de Turismo
 0033 559 460 146 Place des Basques
 Argibideak eta erreserbak:
 943 64 16 66
 659 67 65 70
 10:00-13:00 • 17:00-21:00